

HILARRI BAT SASAMON-EN (BURGOS, ESPAINIA)

Anton Erkoreka

Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía 10. (1994) p. 215-218
ISBN: 8487471-57-9
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Resumen

Se describe una estela discoidea hallada en la localidad burgalesa de Sasamón, entre los restos de una iglesia románica, denominada popularmente "El arco romano".

Résumé

On décrit une stèle discoïdale découverte entre les ruines d'une église roman, appelée par les villageois "El arco romano" dans Sasamón, province de Burgos.

Laburpena

Burgoseko Sasamon herrian aurkitutako hil harri bat deskribatzen da. "El arco romano" deitzen duten eleiza erromaniko baten ondakinen artean agertu zen.



1. Argazkia. "El arco romano". Sasamon (1974).

Sasamón Burgos probintziako iparraldean kokatutako herri bat da. Bertan erromatarren denporako ondakin garrantzitsuak kontserbatzen dira, baita ere Erdi Aroko monumentu interesgarriak.

Herriaren inguruan eleiz erromaniko baten ate-aurre edo ataria sutunik mantentzen da, gari-soloekin inguratuta. Eleizaren beste horma guztiak desagertuta daude. Atari honeri bertakoek "el arco romano" esaten diote, erromatarra ez izan arren, erromanikoa baizik (1. argazkia).

Arko honen azpian aurkitu nuen, 1974-an, hil harri bat beste harri askoren artean nahastuta. Eremu haretan ez itxitxearren, galtzeko arriskuan, neure bildumara ezarri nuen eta momentu honetan bertan jarraitzen du.

Hil harria pisu handikoa da, kare harriekin dago eginda, eta kankala, desberdina da. Apurtuta dago alde askotatik baina ondo ikusten dira aurpegi bietan duaden gurutzeak.

Kokotetik ebagita dago eta beren neurriak hauexek dira: garaiera 29 zm., bururaren diametroa 31 zm. eta lodiera 18 zm.

Aurreko aurpegia (2. argazkia)

Gurutze bat dauka grabatuta oskadun edo reliebean. Gurutzearen besoak 13 zentimetrotakoak dira eta 3 zentimetrotako lodierakoak. Fletxa edo dardan borobilduekin amaituta. Fletxa horren alde zabalena 9 zm dauzka. Esparru borobil batekin inguratuta dago gurutze hau.

Atzeko aurpegia (3. argazkia)

Lau ebakiekin egindako gurutze bat dago biribil baten sartuta. Gurutzearen besoak 9 zentimetroak dira eta borobila 26 zentimetrotakoa.



2. Argazkia. Hil harriaren aurreko aurpegia.



3. Argazkia. Hil harriaren atzeko aurpegia.